

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

barrena	«Ibai ertzean luzatzen diren zuhaitzetan barrena , eguneroko itzulia egiten ari zen enara.»
oskorri	«Arratsaldea zauriturik erretiratzen denean oskorri ederrak sortzen dira, eta haiei begira itzuli ohi zen berriro sorlekura...»
distira	«Behin, ordea, izokin gazte baten distirak enararen arreta piztu zuen.»
enara	«Ibai ertzean luzatzen diren zuhaitzetan barrena, eguneroko itzulia egiten ari zen enara .»
garden	«Diamanterik preziatuena baino dotore, garden eta distiratsuagoa.»
irrikaz	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegia.»
esnatu	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegia.»
gerturatu	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegia.»
sumatu	«Izokin gazteak berehala sumatu zuen uraren beste aldean agerturiko enara hark berarentzat abesten zuela.»
ordudanik	«...irudimenak bihotz bat sortu zuen bien artean, eta bihotz hark lotu zituen ordudanik bien irribarre eta begiradak.»
egundoko	«...errekan behera enararen bila abiatzeko egundoko irrika sortzen zitzaion.»
harresi	«Arrain haztegiko harresiak ez ziren handiak. Baina ez zen ausartzen handik errekarra salto egiten.»
elkarrekin	«Izan ere, enarak eta izokinak ezin dira elkarrekin egon.»
moldatu	«Hauek ere, nola edo hala moldatzen ziren hitz egiteko, bata besteari istorioak kontatzeko, eta musuak emateko.»
pasatu	«Ezer pasa gabe pasatzen zen denbora.»
hartara	« Hartara , errekan behera abiatu, eta gauzez ere enararekin biltzeko aukera izanen zuen.»
kondaira	«Egun batean, ordea, kondaira arabiar bat kontatu zion enarak.»
ahaltsuegi	«Eta egunez egun, poliki-poliki, enborra ahaltsuegia dela sinesten du.»
hazi	«Heldu eta hazi egiten denean (...) nahikoa da elefantearen lau hanketako bat hesola bati lotzea.»
poliki-poliki	«Eta egunez egun, poliki-poliki , enborra ahaltsuegia dela sinesten du.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

hesola	«Heldu eta hazi egiten denean (...) nahikoa da elefantearen lau hanketako bat hesola bati lotzea.»
balentria	«Ea beste izokinen batek lehenago halako balentriarik egin zuen.»
arakatu	«...arrain haztegiko liburutegia arakatu , eta izokinei buruzko liburuak irensten zituen.»
enbarazu egin	«Gainontzeko guztiak nahikoa amorratuta zituen gauez argia piztu eta irakurtzen egoten zelako, besteen atsedinari enbarazu eginez .»
mesfidati	«...beraz, aurpegi ilunez eta mesfidati begiratu zioten.»
auskalo!	«—Hemen lasai bizi gara, arriskurik gabe. Errekan, berriz, auskalo! »
bare	«—Arrain haztegian ura bare egoten denez, ilargia eta izarrak ikus ditzakegu...»
ei	«Arrantzaleak agertzen ei dira noiznahi.»
heinean	«Eta ahal zuen heinean , galderei ahalik eta egokien erantzun zien...»
ahalik eta ...-en	«Eta ahal zuen heinean, galderei ahalik eta egokien erantzun zien...»
erantzun	«Eta ahal zuen heinean, galderei ahalik eta egokien erantzun zien...»
senide	«Egin zezakeen, noski, baina senideak eta lagunak ere harresi haien barruan zeuden, eguneroko dosia jan eta geldo, lasai.»
geldo	«Egin zezakeen, noski, baina senideak eta lagunak ere harresi haien barruan zeuden, eguneroko dosia jan eta geldo , lasai.»
hobe beharrez	«Baina egiten ari zen guztia izokin guztien hobe beharrez zela sinetsita...»
entseatu	«... eta gutxi batzuek jauzi ttipiak ere entseatzen zituzten.»
baliatu	«Gogoetarako beharrea, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»
jauzi	«... eta gutxi batzuek jauzi ttipiak ere entseatzen zituzten.»
beharrea	« Gogoetarako beharrea, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»
ika-mikan	«Gogoetarako beharrea, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»
hutsa (adj.)	«...leloturik geratzen gara begira, motel. Inozo hutsak gara!»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

motel	«...leloturik geratzen gara begira, motel . Inozo hutsak gara!»
.....	
leloturik	«... leloturik geratzen gara begira, motel. Inozo hutsak gara!»
.....	
hegi	«Egoera ez zen nolana hikoia, eta ibaiaren hegian aspaldiko egun eguzkitsu eta ederrenetakoa ageri bazen ere... Ekaitz aroa sumatzen zen.»
.....	
aro	«Egoera ez zen nolana hikoia, eta ibaiaren hegian aspaldiko egun eguzkitsu eta ederrenetakoa ageri bazen ere... Ekaitz aroa sumatzen zen.»
.....	
ezinikusi	«Eta haien arteko ezinikusiak eta tirabirak handiagotuz joan ziren.»
.....	
amore eman	«Baina gazteek ez zuten amore eman nahi, eta etengabe harresien aurka abiatzen ziren...»
.....	
tirabira	«Eta haien arteko ezinikusiak eta tirabirak handiagotuz joan ziren.»
.....	
salabardo	«Elkarri irainka eta muturrekoka ari ziren izokin gehienak, eta zaintzaileak salabardoaz erretiratzen zituen hildako arrainak.»
.....	
izozmendi	«...eta ontzia iparralderantz bideratu zuten, lehen izozmendi arriskutsuak aurkitu arte.»
.....	
eskifaia	«Ontzia izozmendiak gero eta gehiago inguratzen zuten, bidaiariak ere eskifaia gero eta urduriago zeuden...»
.....	
burusi	«Hotz honekin ezin dugu lorik egin, eta guri gizonei baino burusi gutxiago ematen dizkigute.»
.....	
ontzi-mutil	«Baina inork ez zion kasurik egin, ontzi-mutil soila zelako.»
.....	
soil	«Baina inork ez zion kasurik egin, ontzi-mutil soila zelako.»
.....	
iristerako	«Eta gauerdia iristerako , haztegiko izokin guztiek ezagutzen zuten itsasontziaren istorioa, bakoitzak bereari temati eutsi eta norabidea ez
.....	
temati	«Eta gauerdia iristerako, haztegiko izokin guztiek ezagutzen zuten itsasontziaren istorioa, bakoitzak bereari temati eutsi eta norabidea ez
.....	
sarraski	«Ezbairik gabe, elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»
.....	
ezbairik gabe	« Ezbairik gabe , elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»
.....	
adostu	«Ezbairik gabe, elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»
.....	
baztertu	«...beharbada haietako batzuk jauzi egiteko asmoa baztertu eta haztegia geratzea erabaki zezaketen.»
.....	
beharbada	«... beharbada haietako batzuk jauzi egiteko asmoa baztertu eta haztegia geratzea erabaki zezaketen.»
.....	

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zilegi	«Izan ere, ez zen zilegi inor behartzea egin nahi ez zuen zerbait egitera.»
aldarrikapen	«...guztien eskubideak errespetatzen dituen eta izokin guztien aldarrikapenak biltzen dituen honako hitzarmena lege bihurtu eta indarrean sartuko da.»
eledun	«Eta beste hitzik gabe, izokin eledunak amaitutzat eman zuen hartutako erabakien azalpena.»
hitzarmen	«...guztien eskubideak errespetatzen dituen eta izokin guztien aldarrikapenak biltzen dituen honako hitzarmena lege bihurtu eta indarrean sartuko da.»
gatibutasun	«Haztegian egotea gatibutasuna iruditzen zitzaien...»
arreta pausatu	«Mendia eta itsasoa besarkatzen ziren herri hartan, ordea, inork ez zuen arretarik pausatu en.»
arribatu	«...marinelen senideak bakarrik gerturatzen ziren inguru hartara, ontziak itsasoratzen edo arribatzen ikustera.»
tulipa	«Egun batean, ordea, norbaitek tulipa gorri bat jarri zuen leihoan.»
karel	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»
zeharo	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»
gerturatu	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»
paratu	«Gainontzekoek denborarekin ekingo diote bideari, ereduari, baina norbaitek paratu behar ditu lehen tulipa gorriak.»
irrikitan	«Izokin gaztea errekarra salto egiteko irrikitan zegoen.»
gainontzeko	« Gainontzekoek denborarekin ekingo diote bideari, ereduari, baina norbaitek paratu behar ditu lehen tulipa gorriak.»
duintasun	«Eta ohorea, maitasuna, irrika, duintasuna , ausardia eta beldur apur bat bilduta, urduri, uretan abiada hartu eta (...) salto egin zuen...»
zipriztin	«Salto egin zuen izokinak, enararen bila, eta honek, gustura uzten zizkion musuak zipriztin artean.»
errun	«...eta noizbait ibaian gora itzuliko ziren berriro, errutera .»
malenkonia	«Hurrengo goizean, beraz, malenkoniaz agurtu zuen izokina.»
galbide	«...baina itsasoan ez da pausalekurik, eta norabide hura galbidea litzateke enararentzat.»
solasean	«Lurralde urrunetatik itzulitako izokina itsasoaz eta askatasunaz hasi zitzaien solasean .»